

AUTO MUGIKORRENAK

Posted on 20/11/2015 by Naider



Gauzen internetek atzera begiratu gabe aurrera egiten du, gailuen arteko konektagarritasuna eta elkarrekintza, gehienbat telefono mugikorrak, parekatzen zaila den boom-a jasaten ari da; Ford-eko erabiltzaileek euren ibilgailua mugikorretik martxan jartzeko aukera izango dute Sync Connect izeneko enpresa estatubatuarrak sortutako teknologia berriari esker.

Momentuz, mugikorrentzako aplikazioak bezeroen eskura jarriko dituen aukerak kotxea ireki, itxi, abiarazte eta autoaren uraren eta olioaren egoera egiaztatzerako murriztuko dira, nahiz eta ez dagoen baztertzen aukerak areagotu egingo dira denbora pasa ahala eta markaren berezko teknologiak aurrera egin ahala.

Modelo berri hau, SUV izenekoa, Los Angeleseko Auto Show-en (AEB) aurkeztu zen eta publiko orokorrarentzat eskuragarri egongo da 2016tik aurrera.

There are no comments yet.